



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2017KO MAIATZAREN 9an OSPATUTAKO EZ-OHIZKO BILKURAREN AKTA

2017ko maiatzaren 9an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.35etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugica Letamendia
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen dute: Onintza Gorostidi Murua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Hezkuntzarako ekipamendu publikoaren lerrokadura, sestra eta bolumenen zehaztea Alkizan xehetasun-azterlanaren behin betiko onespena**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDU PUBLIKOAREN LERROKADURA, SESTRA ETA BOLUMENEN ZEHAZTEA ALKIZAN XEHETASUN-AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Hezkuntzarako ekipamendu publikoaren lerrokadura, sestra eta bolumenen zehaztea Alkizan xehetasun-azterlana onesteko espedientea bideratzen ari da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurkeztu zuen, eta 2017ko martxoaren 23ko Alkatetza ebazpenaren bidez hasierako onespena eman zitzaion. Ondoren, jendaurrean jarrita egon zen hogeit egunez, dena delako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean –2017ko martxoaren 29ko 62 zk.–, BERRIA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

egunkarian –2017ko martxoaren 28koa–, eta gure udaleko iragarki-oholean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, espedientera bildu diren agiriak ikusita, bai udalbatzak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 22.2.c) artikuluan ematen dizkion eskumenak baliatuta, zinegotzi jaun-andreek gaia eztabaidatu ondoren, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Pedro Izaskun, M.Angel Irazabalbeitia, Eba Erkizia eta Juan A. Herrarte arkitektoek idatziriko Hezkuntzarako ekipamendu publikoaren lerrokadura, sestra eta bolumenen zehaztea Alkizan xehetasun-azterlana behin betiko onestea.

BIGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratzeko agintzea. Era berean, Gipuzkoako foru-administrazioari helaraziko zaio, batetik, behin betiko onespenerari buruzko erabakiaren jakinarazpena; bestetik, behin betiko onetsi den hirigintza-tresnaren alearen kopia bat, behar bezala legezaturik, eta hura osatzen duten plano eta agiri guztiak ere bai, Udal Idazkaritzaren eginbidea behar bezala jarrita; eta, azkenik, bideratu den espediente osoaren kopia bat, erregistratu eta gordailuan utz dadin.

HIRUGARRENA. Baimenak, onarpenak eta lizentziak emateko aukeraren etendura kentzea; hain zuzen ere, xehetasun-azterlanak ukitzen duen eremurako erabaki zena, hasierako onespenerari buruzko ebazpenean.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea erabakitakoa hobekien betetzeko behar diren jardunak gauza ditzan.

=====

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.40etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.